

UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL-MOZIO hau aurkezten du, Arte Ederretako eraikinaren egoera dela eta, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Arte Ederretako eraikinari buruz eman duen azken epaiak ezetsi egin du Sadek, eraikinaren jabeak, Udalarari egin dion ia 14 milioi euroko erreklamazioa, ekitatez banatu ezin diren erabilera eta eraikigarritasun murrizketei buruzkoa. Epaiak jakin bezain laster, hiriko alkateak adierazi du “lasaitua” hartu duela eta lanean jarraitzeko asmoa duela, “eraikinaren kontserbazioa eta erabilera bateragarriak izango diren agertoki batera iristeko”.

Eraikina kontserbatu eta erabiltzeko helburuak sendotu nahian 2019ko ekainean egin ziren bi txosten teknikoak ohartarazi zuten Arte Ederretako eraikinaren barruan osasungarritasunik ez zegoela, zaborra eta hainbat objektu eta material pilatuta zeudelako, eta horrek beste arazo bat sortzen zuela, eraikinak sua hartzeko arriskua baitzegoen. Hala ere, 2020ko otsailaren 29ra arte ez zitzaion SADERi eskatu Arte Ederretako eraikinaren barnealdea garbitzeko eta desinfektatzeko, “48 orduko epean”.

2020ko martxoaren hasieran, jabea den enpresak hiru asteko epea eskatu zuen baimenak izapidetzeko, eremu publikoan edukiontzia jartzeko eta, azkenik, materialak bereizteko eta kentzen hasteko enpresa espezializatu bat kontratatzeko.

Hirigintza Zuzendaritzak egindako azken txosten teknikoan jasota bezala, Arte Ederretako eraikina “erabateko osasungaitzasun” egoeran dago, eta horrek “kezkatzeko moduko segurtasun-falta” eragiten du, bai eraikinak sua har dezakeelako bai “bertan dauden karraskariek, usteldutako hondakinek, substantzia eta material kaltegarriek eta abarrek osasun publikoari erasan diezaioketelako”.

Bestalde, eraikinaren jabeak Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren epaiak bete behar du. Horren arabera, Sadek “besaulki-patioko sabaian dauden eraikuntza-elementu batzuk konpondu” behar ditu.

Kontuan hartuta Arte Ederretako eraikinaren jabearen eta Donostiako Udalaren artean ezin konta ahala auzi izan direla, ondasun hori gero eta hondatuago dagoela eta ondarea kontserbatzeko —Espainia osoan den XXI. mendeko eraikin bakarra Unescok ezarritako nazioarteko alerta duena— eta guztien onarentzat eta haren jabeen interesentzat aproposa den erabilera bat emateko helburu bikoitza betetzeko aukerarik hurbil ez dagoela, joan den martxoan planteatutako interpelazioaren ondorioz, kontrol-mozio hau aurkezten diogu Udalbatzari:

KONTROL-MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Hirigintzako teknikariak Arte Ederretako Eraikinean azaldu daitezela, hura garbitzeko udal errekerimendua bete dela fede emateko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hilabeteko epean txosten zehatz bat aurkez dezala Arte Ederretako Eraikinaren barruan dagoen egoeraz, osasungarritasun eta garbitasunari dagokienez.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezia berrikusten ari dela balia dezala eraikinaren babes-maila B kategoriara igotzeko.

Donostia, 2020ko maiatzaren 18a

Borja Corominas Fisas,
Talde Popularreko bozeramailea